

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2018ko zerga ordaintzeko borondatezko epea

Nik, David López de Arbina Ruiz de Eguinok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: 2018ko martxoaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea

A) Borondatezko epea: 2018ko martxoaren 20tik apirilaren 30era.

B) Betearazte aldia: 2018ko maiatzaren 1etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua.

A) Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.org/es/ayuntamiento (Nire ordainketa).

III. Gomendioak

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Donemiliagako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2018ko martxoaren 14a

Alkatea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO